

Gauza beragatik ez dakar Axular, *Gero* (1643) liburuaren XLIX-gn. kapituluan pilotari buruz jardunarren. Ezta Axular baino lehen pilota aipatu zuten Etxeberri Ziburukoa eta Pouvreau, bere hiztegian honek. Iguaranek, 1853-an aipatzen du Gorosabel, baina ez urte berean *Eskaldunac* poema argitaratu zuen Hiribarren, eta «Pilota Yocoa» izenezko poema hasten du 211-garren orrialdean. Juan Antonio Mogel berak ere, 1800-ean argitaratu zuen *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean Eracasteac* liburuaren 63-garren orrialdean.

Aztertzen jarraituko ba gendu, oraindik euskerazko egileen artean askoz ere izen gehiago aurkituko genituzke pilotaren aipamena egin dutenak eta Iguaranen lerroetan ez daudenak. Penagarria, hainbeste hizkuntzetako egileak aipatzen direlarik, gure herrian bertan, eta eruditoen artean gainera, euskaldun egileak ezagunagoak ez izan beharra.

Hau ez da Iguaran personalki salatzearen, eruditoak orok baizik. Bide batez, urrengorako, hutsa osatzeko bidea ematen dugu.

J. S. M.

ZERGATIK UHIN ETA EZ UHAIN.—Bai, Uhin, Azkuek bere hiztegian hala dakarrelako. Axularrek hala erabili zuelako. Laburdin hala dalako (eta hitz hau oso berena dute lapurditarrek). Uhain, Lhandek zionez, Ziberoan erabiltzen omen da; baina Ziberoak ez du itsasorik eta Lapurdik bai. Beraz, itsas gauzetan, Lapurdirik amor emango nioke, beti ere, eta ez Ziberoari. Bestalde, gure literaturaren klasikoak ba dira nor, eta hiztegirik hoberena ere ba da zer.

Mixelena berak, euskera idatziaren batasunerako —behar bada errazoi horiek kontuan harturik—, *Uhin* hautatu zuen. Hau ere bada zerbahit.

J. S. M.

GAZTERIA.—*Gazteria* gaizki dagoela, oraintsu esan digute euskerazko aldizkari batean. *Gaztedi* behar duela izan, esaten digute.

Gauza askok, nondik begiratzen den, hala ikusi. *Gaztedi* bai eta *Gazteria* ez? Bueno, ba, bai: *Gaztedi*, euzkotarrentzat; eta, *Gazteria*, euskaldunontzat. Eta, kitto!

J. S. M.